

LAGUNTZA-PRODUKTUAK AUKERATZEA (OHE ARTIKULATUA, GURPIL-AULKIA, AUDIFONOA...)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Adingabea -18 desgaitasunarekin > Laguntza etxean eta/edo bititza autonomia izateko

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Desgaitasuna edo mendekotasuna (I.,II.,III. graduak) duten pertsonak.

Kostua

Koordinaketaren mende dagoen zerbitzua, egoera ekonomikoaren eta produktuaren arabera.

Baldintzak

Desgaitasuna edo **mendekotasuna** egiaztatzea.

Errolda (12 hilabete).

Adin-mugarik gabe (salbuespenekin).

Zertan datza?

Zerbitzu honek laguntza ekonomikoak ematen ditu, edo desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen autonomia pertsonala hobetzeko balio duten laguntza-produktuak eskaintzen ditu ([2.7.2.2 fitxa](#)). Helburu horrekin, dauden laguntza-produktuei buruzko orientazioa ematen du, produktu horietarako sarbidea errazten du, bai eta horien erabilerari buruzko oinarrizko entrenamendua ere. Laguntza-produktutzat (edo laguntza teknikotzat) hartzen da mugak arintzen edo ezabatzen dituen tresna edo sistema tekniko oro. Ohe artikulatuak, dutxarako aulkiak, mobilizatorako garabiak, gurpil-aulkiak, entzumen-protesiak, pertsonen arteko komunika gailuak, komunikatorako gailu informatikoak eta abar izan daitezke. Laguntza teknikoak (laguntza-

produktuak) honako hauek izan daitezke:

- a. **Berreskuragarriak**, onuradun batek baino gehiagok erabili ahal dituztenean; kasu horietan, mailegu bat egiten da;
- b. **Berreskuraezinak**, pertsona bakar batek erabil ditzakeenean; kasu horretan, laguntza ekonomiko bat ematen da horiek erosteko.

Laguntza berreskuragarrietarako, zerbitzu hau dago, eta berreskuratu ezin direnetarako, [laguntza-produktuak erosteko laguntza](#). Zerbitzua **etxean zein egoitzetan** eskaintzen da.

Norentzat?

- %33ko edo hortik gorako **desgaitasuna** duten pertsonak, edo
- **Mendekotasun-egoeran** dauden pertsonak (I.,II. eta III. graduak).

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordinatutako menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta produktu motaren arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Desgaitasuna =>%33 eta/edo mendekotasuna onartua izatea.

Adin-mugarik gabe, entzuteko protesiak izan ezik (16 urte edo gehiago).

Aurreko 12 hilabeteetan EAEn erroldatuta egon izana.

Azken 6 urteetan kontzeptu beragatik diru-laguntzarik jaso ez izana (salbuespenak salbuespen).

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Laguntza-produktuen zerbitzua Araban](#)
- [Laguntza-produktuen zerbitzua Bizkaian](#)
- [Laguntza-produktuen zerbitzua Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)